

SunTech

Peru García, Jagoba Lorenzo, Chanda Muñoz, Nicole Pinzón

1. IDEIA

Gure ideia produktu teknologiko bat da, eguzkiz karga daitekeen zamagailu eramangarria. Produktu honekin, gailu elektronikoak (mugikorrak, tabletak, entzugailuak...) erabiltzen dituzten pertsonak gailu horiek kargatezko beharra dutenean zamatu ahalko dituzte edozein momentuan, bakarrik eguzkiaren energiarekin. Honela kargagailu tradizionalaren beharra ia guztiz desagertzen da.

Produktuari dagokionez, bi eguzki-panelek, bateria ahaltsu batek eta metalezko aleaziozko karkasa batek osatzen dute, kargagailu eramangarria arinagoa eta praktikoagoa izan dadin. Bateriak energia-ahalmen handia du, eta, bateria guztiz kargatuz, 6 ordu iraun dezake gailu bat kargatzen. Tresnen karga, horiek zer nolako bateria ahalmena duten arabera aldatzen da, baina beti azkarra izaten da. Horren ondorioz, produktua ezinhobea bihurtzen da, adibidez eguna mendian pasatzean duzunean edo etxeko kargagailuaren erosotasunetik urrun zaudenean.

Zamagailua pertsonalizatu nahi badugu, hainbat produktuaren modelo desberdinak aukeran daude, handiagoak edo txikiagoak, eta karga-ahalmen desberdinekoak. Gainera, produktua kolore-gama zabal batean dago eskuragarri, kargagailua nahi bezala konbinatzeko, grabatuekin eta estanpatuekin ere, nahi izanez gero.



